



Udal aldizkaria

2016ko martxoa. 2. alea

AURKIBIDEA

LUR ZOLAKETAK 2

LAN KONTRATAZIOA 3
Zurea da txanda!

ESKUALDEA 4-5

NAZIOGINTZA 6

TURISMOA 7

MOTX-MOTXEAN 8

HURRENGO HITZORDUAK 8

“Esan dezakegu, eskualdean eztabaida eta diseinu prozesu batean gaudela”

Mendialdea Mankomunitatea | 4

PLAZAKO LUR ZOLAKETAK EGINGO DIRA

Obrak ekainaren 23a baino lehen hasi behar dute / 2



Goizuetako Udala



IZASTA STA IZATOA

AZKENEAN AURRERA DOA PLAZAKO LUR ZOLAKETAREN PROIEKTUA

Udalak 443.766,66€-ko inbertsioa egingo du plaza ingurua berritzeko

Diru laguntzaren nondik norakoak

Goizuetako Udalak, Toki Inbertsio Planera (Plan Trienala) plazako lurra berritzeko zolaketa proiektua aurkeztu zuen. 2014ko maiatzean, proiektua onartua izan zen 263.905,41€-ko diru laguntza emanez eta obrak hasteko urte beteko epea zehaztuz. Baina urte horretan udal korporazioak zailtasunak izan zituen lizitazio prozesua martxan jarri eta obrari hasiera emateko. Ondorioz, 2015eko maiatzean epe luzapena eskatu zen. Hala ere, toki administratibotik ezezkoa eman zioten luzapenari eta ondorioz, diru-laguntza kendu zen. Ulertzen genuenez herrian proiektuak interes handia zuela, udalak, alegazioa aurkeztea erabaki zuen.


2015eko abenduaren 23an alegazioa onartzearen eraginez, diru laguntza berreskuratu zen eta sei hilabeteko epea dugu lanak martxan jartzeko. Honek, obrak, ekainaren 23a baino lehenago hasita ekarriko du. Lanek bi hilabete baino gehiago iraungo dutela kontuan harturik, behartuak gaude abuztuan zolaketa lanetan egotea plaza. Beraz, jaietako elkargunea eta eskaintza kulturalaren eszenatoki nagusia izanik, obrak ahalik eta eragozpen gutxien sor ditzan ahaleginduko gara.

Obraren nondik-norakoa

Begi-bistakoa da lurra berritzeko premia dagoela urte guzti hauen igaroak sortutako kalteengatik eta herritarron elkargunea izanik, duen garrantziagatik.

Migel Angel Ederra ingeniari zibila da lur zolaketa proiektua diseinatu duena. Argazkian argi azaltzen den gisan, plaza ingurua izango da berrituko dena eta besteren artean, erabiliko den baldosaren bidez, oinezkoak izango du lehentasuna lanak bukatu ondoren plazak hartuko duen itxuran. Osotara, lanen gastua 443.766,66€-koa izango da (BEZ barne).

“Zehaztasun gehiago emango ditu Migel Angel Ederrak martxoaren 18a, ostirala, 18:30etan udaletxean egingo den hitzaldian”



Plazako lur zolaketa proiektua.

LAN KONTRATUA EGIN DA DIRU-LAGUNTZA BATEN BIDEZ

2015eko irailaren 30ean Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Nafarroako toki entitateei 331.086 €-ko diru-laguntza ematea onartu zuen. Gazteen langabezia tasa ikusirik, helburua, gazte langabeak lan munduan txertatzea erraztea zen. Horregatik, Gazte Bermearen Sistemari inskribaturiko langabe gazteak kontratatzeagatik diru-laguntzak ematea onartu zuen.

Gazte Bermean izena emateko baldintza batzuk bete behar ziren: 30 urte baino gutxiago izatea, izena eman aurreko 30 egunetan lanik ez egin izana, aurreko 90 egunetan ikasketarik ez egin izana...

Udal korporazioak, herrian, bertako langileek egin zi-

tzaketen zenbait lan bazirela ikusten genuen eta diru-laguntza hau aprobetxatuz, herriko gazteentzako lan eskaintza bat sortzea erabaki genuen. Jarrera xumea da baina gazteen langabeziari begira, pauso txiki modura ikusten dugu.

Beharra ikusita, funtzio anitzetarako lanpostu bat eskaintzea erabaki genuen: sei hilabetetarako kontratazioa, 10.681,73€ gordinekoa eta %56,08an subentzionatua.

Hiru herriko gaztek eman zuten izena eta horien artean, Ibai Zugarramurdi aukeratu zen. Abenduaren 15ean hasi zen lanean eta ekaina arte ariko da Angel eta Jose Ramonekin batera.



Ibai Zugarramurdi herriko lanetan.

ZUREA DAI!
TXAN DAI!

Herriko langileek egin dezaketen zereginik ikusten baduzu, idatzi hemen, moztu eta sartu udaletxeko buzoian.

Eskerrik asko!

012 ZERBITZUA

Nahi al dituzu udaletik herri-
tarrei bidaltzen dizkizuegun
mezu informatiboak mu-
gikorrean jaso?

Datuak bete, moztu eta sar-
tu udaletxeko buzoian.

Izen-abizenak: _____

Tel: _____

NAN: _____

Izen-abizenak: _____

Tel: _____

NAN: _____

Eskerrik asko!

Markel Azkargorta, Leitzako zinegotzia da, aurretik An-
tzuolako udaletxean administrari lanean aritua. Beste
hainbat zereginen artean, hondakinen ardura eramaten
zuen. Beraz, alorrean lehendik esperientzia duena da.

MARKEL AZKARGORTA, MENDIALDEKO LEHENDAKARIA, DEDIKAZIO OSOZ ARIKO DA LANEAN



Markel Azkargorta, Mendialdea Mankomunitateko lehendakaria.

Abenduan ospatu zen batzar orokorrean, mankomunita-
tearen 2016ko aurrekontua eta ekintza plana onartu ziren.
Beste erabakien artean, Markel Azkargorta lehendakariaren
lanerako dedikazio osoa onartzea erabaki zen, bere soldata
1622'13€-koa izanik.

2009. urtean Mendialdea Mankomunitatea sortzerakoan,
hondakinen kudeaketaz gain, beste hainbat zerbitzu biltzeko
aukera hitzartu zen. Arano, Areso, Goizueta, Larraun, Leitza
eta Lekunberriko udaletako ordezkariak mankomunitatearen
sorrerako izaera honi berriz heldu behar zaiola ikusten dute.

Markelen lanpostua onartzearen garrantzia, alde batetik, es-
kualdeko zerbitzuak hobetzeko nahia da eta bestetik, Nafar
administrazio berrantolaketaren aurrean (mapa lokala) guk
erabakitako egitura administratibo sendo bat osatzea.

Honek lana eskatzen du eta ordezkari zein herritarron parte
hartzea. Guzti honetaz arduratuko da Markel.

“Esan dezakegu, eskualdean eztabaida
eta diseinu prozesu batean gaudela”

Zer da Garapen agentea?

Elena Irigoien Cedernatik gure eskualdeaz
arduratzen den garapen agentea da eta bere
lana sektore publiko eta pribatuari garapen
sozio-ekonomikoan laguntza eta sostengua
ematea da.

Eszedentzian egon ondoren, lanera bueltatu
da eta orain arte Leitza, Lekunberri eta La-
rraintzarren (Ultzama) ematen bazuen ere
arreta, hemendik aurrera, Goizuetako uda-

letxean ere egongo da bi astetik behin. Ho-
rrela, herritarren arretarako gertuago egongo
da eta udaletxeko lanak ere errazago egingo
ditu.

Elenarekin elkartzeko hitzordua eskatu behar
da eta horretarako, bi modu daude:

Tel. 617 609 328

Posta: mendialdea@cederna.es

Zure negozio propioa martxan jartze-
ko asmorik baldin baduzu (gaztandegi
bat, tailer bat, landa etxea, denda bat...),
edo negozioan aldaketaren bat burutze-
ko asmoa (erreformatu, handitu, tokiz al-
datu...), edo zure herrian bertan lan egin
eta bizitzea gustatuko balitzaizu, horre-
tan laguntzen du Garapen agenteak.

Mendialdeako GARAPEN AGEN-
TZIAN zure asmo, ideia, beharrak eta
kezkak aztertzen ditugu. NOLA?

- Buruan dabilkizun ideia hori aurrera era-
mateko eman behar dituzun pausu guz-
tiak azalduko dizkizugu.

- Aztertu dezakegu ea posiblea edo
errentagarria den.

- Betebeharreko legediaren berri emango
dizugu, ze tramite egin behar diren azal-
du eta nora jo behar duzun dirulaguntzak
jasotzeko.



Elena Irigoien, eskualdeko garapen agentea.

“Udalak eskaintzen duen zerbitzua
da, denon artean ordaintzen duguna
eta herritarrei zuzenduta dagoena”

ERABILI EZAZU!!!!

UEMA EGUNA LEITZAN



Urtarrilaren 23an egin zen UEMako Batzar Nagusia eta bertan izan zen Goizuetako udaleko UEMako arduraduna den Zuriñe Lujanbio zinegotzia. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea sendotzea dute aurtengo helburua baina Josu Labaka lehendakariak, UEMAk euskarari eta euskararen normalizazioari egin dion ekarpena ere gogoratu zuten: “17 udalek sortu zuten duela 25 urte eta 73 udalek osatzen dute egun”. Orduko ilusioa, lanerako gogoia eta euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko premia, bizi-bizirik daudela erakutsi zuten.

Bereziki, UEMaren 25. urteurrena eta maiatzaren 28an Leitzan izango den Udalerrri Euskaldunen Eguna nabarmendu zituzten.

UDALBILTZAKO BATZAR NAGUSIA

Otsailaren 20an ospatu zen Udalbiltzako batzarra Atarrabian eta bertan zen Goizuetako Udalean Udalbiltzako ordezkaria den Itsaso Lujanbio zinegotzia. Udalbiltzako udal ordezkariak Nazio Gobernu berria hautatu zuten: Hernaniko alkate Luis Intxauspe lehendakari gisa eta beste 12 gobernuakide.



Lehendakariak gaineratu zuenez, “gobernu berriaren lehen erronka erakundeen eta hautetsien artean apurtuta dauden zubiak eraikitzen hastea da”. “Egoera politiko berria dugu eta Euskal Herria aintzat hartzen duen orok tokia du Udalbiltzan”. Beste instituzioekin eta alderdiekin harremanak sendotzeko bidean, Gasteizko Udalekoa jarri zuten eredu. Euskal Herri osoko erakundeekin bilera erronda abiatzeko asmoa duela iragarri zuten, apurtutako zubi horiek eraikitzen hasteko.

MARTXOAK 8:

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Urteotan jendartearen eskubide zibil eta oinarrizkoek atzera egin dute: lan prekarizatua, zerbitzu sozialen murrizketa... Egoera orokor honetan, emakumeon eskubideek atzerapauso handiagoak izan dituzte: emakumeon enpleguaren prekarizazio itzela, biolentzia matxisten areagotzea, eraso sexisten egunerokotzea... eta larriagoa dena, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortua dagoen uste ustela.

Martxoak 8an berriro ere aldarrikapenak azaleratzea egokitzen zaigu, berdintasunetik urruti gaudelako oraindik. Azken orriko hitzorduen atalean eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik egunaren arira antolatutako ekitaldien berri agertzen da.



“Feminismoa ez da matxismoaren kontrakoa, ezberdintasunaren antidoto onena baizik”.

ARTIKUTZA:

KONTSERBAZIO BEREZIKO LEKU IZENDATU DUTE



Ilbeltzaren 8an NAOean argitaratu zen moduan, Nafarroako Gobernuak Artikutza “Kontserbazio Bereziko Leku” (ZEC gaztelaraz) izendatu zuen, bertan Nafarroako aniztasun biologikoaren adierazgarri diren bizileku natural, landareri eta fauna daudela ulertuta.

Elementu hauen kontserbazioa bermatzeko, Kudeaketa Plan bat osatu da eta planaren jarraipena egiteko lantalde bat osatu da

Goizuetako Udala, Nafarroako Gobernua eta Donostiako Udalaren artean.

Artikutzak jasotako kategoria honek, begi bistan uzten du, Goizuetan daukagun altxor honen balioa; Nafarroa mailan ez ezik, Europa mailan ere interesa pizten duen lekua dela adierazten baitu. Oso leku gutxitan aurki daitezkeen animalia eta landareak topa genitzake Artikutzan eta horrexegatik kontserbatzeko baliotsuak direnak. Galtzeko arriskuan dauden elementu hauen babesa da ZEC-aren ardatza.

Kudeaketa Planaren jarraipena egiteko lantaldea eratzeko lehen bilera ilbeltzaren 15ean ospatu genuen Artikutzan bertan. Hartu beharreko neurriak elkarlanean eta adostasunez egiteko predisposizioa izan zen bileran. Kudeaketa Planaren proposatzen diren neurriak aurrera eramateko 10 urteko epea markatzen da.

IBAITIK BADIARA: BIOINGENIERITZA JARDUERAK

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak antolatuta, Ibaitek Badiara jardunaldiak burutu dira Goizuetan. BIOINGENIERITZA TAILERRA egin dute eta Urumea ibaia eta Zubi Haundian erabili dituzten teknika jakin batzuen inguruko formazioa jaso dute. Teknika hauek, urak egiten dituen kalteak material sostengarriagoak erabiliz egonkortzean datza. Herriko 7 lagunek parte hartu dute eta Fraisoro eskolako 20 bat gazte ere etorri dira. Gainera, Fredy Rey (Frantzia) Europar adituak HITZALDIA eskaini zuen eta 15 pertsona elkartu ziren. Baso ingenieritzan doktorea da eta mendia eta ibaia ardatz hartuta aritu zen. Goizuetako problematiken inguruan ere aritu ziren: presak, lurjausiak, uholdeak... Bukatzeko, irteera egin dute Urumea ibaia zeharkatzen duten herrietan barrena.



MOTX-MOTXEAN

GIMNASIOA

Inbertsio berriak egiten ari gara Asinkoko gimnasioan. Alde batetik, zinta aparato berria jarri da, eta bestetik, komona jartzeko obretan gabiltza. Inbertsio hauek egiteko, herri batzarrean herritarren aldetik jasotako eskaria hartu da kontuan.



GIZARTE ZERBITZUAREN LOKALA

Inauguratu da Arano eta Goizuetako herritarren Gizarte Zerbitzuen egoitza berria. Otsailaren 12an egin zen inaugurazio-ekitaldia eta 40 bat lagun elkartu ginen. Orduetik, Santa Maria kaleko 26 zenbakiko behean ematen da zerbitzua. Hitzordua hartzeko: telefonoz, 948 510 840; posta elektronikoz, ssbleitza@infolocal.org; eta facebook-en LAGA gizarte zerbitzua.



EKITALDIEN BILDUMA

Udala herrian antolatzen diren ekitaldien bilduma osatzen hasi da. Urtean zehar antolatzen diren ekitaldien informazioa jaso eta bilduma bat osatzea da asmoa, konturatu gaitezen Goizuetan ze ekintza antolatzen diren, ze motatakoak diren, zenbat diren, zenek parte hartzen duen... Nahi duen ororentzat, www.goizueta.eus atarian dago eskuragarri bete beharreko inprimakia.



HURRENGO HITZORDUAK

2016-03-06 10:00. LILATOIA. Emakumeen lasterketa herrikoia. Donostia.

2016-03-06 17:30. PELIKULA. "Coria eta itsasoa". Udaletxeko ganbara.

2016-03-08 EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

2016-03-08 21:00. EMAKUMEEN AFARRIA. Umore-Ona elkarte.

2016-03-09 18:30. KOMUNIKAZIO BAZTORDEKO BILERA. Udaletxea.

2016-03-18 18:30. BILERA: PLAZAKO LUR ZOLAKETAK. Udaletxea.

2016-03-27 ABERRI EGUNA.

2016-04-09 19:00. HELDUEN-TZAKO IPUINAK: "Hotzikara, ipuin erotikoak". Umore-Ona elkarte.

2016-05-01 LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA.

2016-05-06/07 TXINO AUZOKO FIESTAK. Goizueta.

2016-05-08 HERRI URRATS. Senpere.

2016-05-21 GOIZUTRAIL mendi lasterketa. Goizueta.

2016-05-22 SORTZEN JAIA. Eskola publikoen aldeko festa. Hernani.

2016-05-28 UEMA EGUNA. Leitza.